

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: Ohikoa.

Eguna: 2006-5-31 (asteazkena).

Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:05

Tokia: Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Juan Ramon Larrañaga Mercero, alkatea.

Jose Luis Herranz Gutierrez, EAko zinegotzia.

M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, EAko zinegotzia.

Jose Luis Cid Delgado, EAko zinegotzia.

Vicente Garmendia Martinez, EAko zinegotzia.

Jose Luis Zabaleta Idigoras, EJko zinegotzia.

Iñaki Mendia Izagirre, atxikigabeko zinegotzia.

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EJko zinegotzia.

M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, EJko zinegotzia.

Oscar Jose L. Murillo Perez, PSEko zinegotzia.

M^a Isabel Ugarte Fernandez, PPko zinegotzia.

Gerardo Anton Martin, EBko zinegotzia.

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Idoia Arebalo Benito, behin behineko Idazkaria.

Bertaratu ez direnak:

Francisco Ramos Rehecho, Talde Mistoko zinegotzia.

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Aztergaiak:

- 1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-03-29ko bilkurari dagokion akta onartzea.
- 2.- Bidezkoa bada, Plazaola izeneko 12. Arearen xehetasun azterketaren aldaketa behin betiko onartzea.
- 3.- Bidezkoa bada, diru-laguntzen ordenantza hasiera batean onartzea.
- 4.- Bidezkoa bada, 2005eko aurrekontuko udaletxeko Kontu orokorrak onartzea.
- 5.- Bidezkoa bada, Etxez etxeko laguntza zerbitzuko Pleguak onartzea
- 6.- Bidezkoa bada, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa eguneratzeko proposamena onartzea.
- 7.- Bidezkoa bada, eguneko zentroko girotze-zerbitzuaren prezioa eguneratzeko proposamena onartzea.
- 8.- Bidezkoa bada, Gizarte Zerbitzuko erakunde eta elkarteekin sinatuta dauden hitzarmenak luzatzeko eta diru-laguntzen zebatekoak eguneratzeko proposamena onartzea.
- 9.- Bidezkoa bada, Olazabal institutuarekin hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: Ordinaria.

Día: 31-5-2006 (miércoles).

Hora: Comienzo: 19:30 y final: 20:05

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Juan Ramón Larrañaga Mercero, alcalde.

José Luis Herranz Gutiérrez, concejal de EA.

M. Aranzazu Arizmendi Gereñu, concejal de EA.

Jose Luis Cid Delgado, concejal de EA.

Vicente Garmendia Martinez, concejal de EA.

José Luis Zabaleta Idigoras, concejal de NV.

Iñaki Mendia Izagirre, concejal no adscrito.

Francisco Javier Iraeta Alvarez, concejal de NV.

M. Gloria Mtnez de Guereñu Fdez de Ocariz, concejal de NV.

Oscar Jose L. Murillo Perez, concejal de PSE.

M^a Isabel Ugarte Fernández, concejal de PP.

Gerardo Anton Martin, concejal de IU.

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Idoia Arebalo Benito, Secretaria en funciones.

Personas que no han acudido a la reunión:

Francisco Ramos Rehecho, concejal del Grupo Mixto.

Personas que han excusado su asistencia:

Orden del Día:

- 1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 29-3-2006.
- 2.- Aprobación definitiva, si procede, de la modificación del estudio de detalle del Area 12
- 3.- Aprobación inicial, si procede, de la ordenanza de Subvenciones.
- 4.- Aprobación, si procede, de las Cuentas generales del Ayuntamiento Presupuesto 2005.
- 5.- Aprobación, si procede, de Pliegos de Ayuda Domiciliaria
- 6.- Aprobación, si procede, de la actualización del precio del servicio de Ayuda a Domicilio
- 7.- Aprobación, si procede, de la actualización del precio del servicio de animación del centro de día.
- 8.- Aprobación, si procede, de la prórroga de los convenios con las entidades y asociaciones relacionadas con Servicios Sociales así como la actualización de las cuantías de las subvenciones.
- 9.- Aprobación, si procede, del convenio con Instituto Olazabal.
- 10.- Aprobación, si procede, de la adhesión al compromiso para la prevención de residuos

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

10.- Bidezkoa bada, hiri-hondakinen prebentziorako konpromisoa hartzeko eta prebentzio arloan eta hondakinak berziklitzeko alorrean ingurumena hobetzeko plana onartzeko proposamena onartzea.

11.- Bidezkoa bada, 2006ko lanpostuen zerrenda eta Plantila Organikoa onartzea.

12.- Bidezkoa bada, euskal toki-entitateetako lan-kontratudunen eta funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzea.

13.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.

14.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- Bidezkoa bada, joan den 2006-03-29ko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aho batez onartu da.

2.- Bidezkoa bada, Plazaola izeneko 12. Arearen xehetasun azterketaren aldaketa behin betiko onartzea.

Alkate jaunak Plazaola izeneko 12. Arearen 12.1 hirigintzako egikaritzapen-unitaterako egin den Xehetasun azterketari buruz jarraitu den prozeduraren gainean udaletxeko zerbitzu teknikoek egin duten txostena irakurri du. Halaber, azterketan eman diren aldaketak eta jarraitutako prozedura adierazi du. Bukatzeko, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu batzordeburuak Xehetasun azterketa behin betiko onartzeari buruz egin duen irizpena onartzearen aldekoa dela jakinarazi du.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, Iñaki Mendia jaunaren abstentzioarekin eta gainerakoen aldeko botoekin onartu da.

3.- Bidezkoa bada, diru-laguntzen ordenantza hasiera batean onartzea.

Alkate jaunak estatu mailako diru-laguntzen Legea aldatu dela eta, ondorioz, diru-laguntzen ordenantza berriro idatzi beharra eta egokitu beharra dagoela jakinarazi du.

Alkate jaunak aldaketa nabarmenena, diru-laguntzak jasotzeko sistema orokorra lehia librea izan behar duela eta hori jaso behar dela jakinarazi du. Horretarako deialdi publikoa egin beharra dago, diru-laguntza puntualak eta izenduak behar beharrezko egoeretara bakarrik murriztuz.

Orain onartzeko aurkeztu den testua udaletxeko departamentu desberdinetako teknikariek landu eta adostu dutela eta ondoren,

urbanos y aprobación del plan de mejora ambiental en el área de prevención y reciclaje de residuos.

11.- Aprobación, si procede, de la Relación de Puestos de Trabajo 2006 y Plantilla Orgánica.

12.- Aprobación, si procede, del acuerdo regulador de las condiciones de trabajos de los funcionarios y personal laboral de las instituciones locales vascas.

13.- Dar cuenta de los decretos dictados

14.- Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 29-3-2006.

Es aprobada por unanimidad.

2.- Aprobación definitiva, si procede, de la modificación del estudio de detalle del Area 12 (Plazaola).

El Sr. Alcalde pasa a dar lectura al informe redactado por los Servicios Técnicos del Ayuntamiento con respecto al procedimiento seguido con respecto al Estudio de Detalle para la U.E.U. 12.1 del Area 12 (Plazaola) y su modificación, exponiendo los cambios habidos y todo el procedimiento seguido. Concluye diciendo que el dictamen realizado por el Presidente de la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, relativo a la aprobación definitiva de la modificación del referido Estudio de Detalle es de sentido positivo a su aprobación.

Se procede a la votación y se aprueba con la abstención del Sr. Iñaki Mendia.

3.- Aprobación inicial, si procede, de la ordenanza de Subvenciones.

El Sr. Alcalde comienza su exposición diciendo que el motivo de una nueva redacción de la ordenanza de subvenciones obedece a una modificación de la Ley de subvenciones a nivel estatal, lo que obliga a la realización de ciertos ajustes.

El Sr. Alcalde expone que el mayor ajuste a implementar sería el de la incorporación de la libre concurrencia como sistema general para la obtención de las subvenciones, mediante convocatoria pública, restringiendo a lo estrictamente necesario las concesiones puntuales y nominales de subvenciones.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

Berrikuntza Batzordean gainbegiratu dela adierazi du Alkate jaunak.

Iraeta jaunak ordenantzaren izapidetze-prozeduran orain zein egoeratan gauden galdetu du. Alkate jaunak orain hasierako onarpena erabaki behar dela, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela eta, segidan, alegazioak aurkezteko legezko epea irekiko dela erantzun dio.

Arakama jaunak Ordenantzak ez duela Kirol taldeek duten berezko araudia ordezkatzeko argitu dio Iraeta jaunari. Aldiz, araudi hori izango da ordenantza berrira egokitu beharko dena.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

4.- Bidezkoa bada, 2005eko aurrekontuko udaletxeko Kontu orokorrak onartzea.

Arakama jaunak Toki erakundeen aurrekontuen 21/2003 Foru Araual arautzen dituen Kontu Orokorrak nola bideratu diren eta jarraitu den prozedura zein izan den azaldu du.

Arakama jaunak gaiarekin jarraituz, udaletxeko, Kirol Patronatuko, euskaltegiko eta Herrigintzako kitapena eta geldikina azaldu ditu.

• Kitapena/ geldikina:

Udaletxea: azken geldikina 5.890 eurokoa izango litzateke.

Kirol Patronatua: 8.000 euroko geldikin negatiboa; geldikin horrek aurreko ekitaldietakoa murriztu du.

Euskaltea: azken geldikina 54.000 eurokoa izango litzateke.

Herrigintza: Eraitzen kontuak 12.000 euroko etekina eman du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, Oscar Murillo zinegotziaren abstentzioarekin eta gainerakoek aldeko botoekin onartu da.

Prosigue el Sr. Alcalde diciendo que el texto ha sido fruto del trabajo y del consenso de los técnicos de los diferentes Departamentos del Ayuntamiento, viéndose después en la Comisión de Innovación.

El Sr. Iraeta pregunta sobre el estado de tramitación de la ordenanza, a lo que el Sr. Alcalde responde que se trataría de una aprobación inicial, con la posterior exposición pública durante un mes desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el cual se podrán presentar alegaciones.

El Sr. Arakama aclara al Sr. Iraeta que la nueva ordenanza no sustituye a la normativa propia de los Clubes Deportivos, sino que es esta última la que deberá adaptarse a la nueva.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

4.- Aprobación, si procede, de las Cuentas generales del Ayuntamiento Presupuesto 2005.

El Sr. Arakama comienza su exposición diciendo que la tramitación de las Cuentas Generales la regula la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales y explica todo el procedimiento realizado.

Prosigue el Sr. Arakama dando a conocer los datos más significativos de las Cuentas Generales de referencia, es decir, la Liquidación/remanente del Ayuntamiento, del Patronato de Deportes, del euskalategi, Herrigintza

• Liquidación/remanente:

Ayuntamiento: remanente final que ascendería a 5.890 euros.

Patronato de Deportes: remanente final negativo de 8.000 euros, que disminuye el de ejercicios anteriores.

Euskalategi: remanente final de 54.000 euros.

Herrigintza: cuenta de resultados de 12.000 euros de beneficios.

Se procede a la votación y se aprueba con la abstención del Sr. Oscar Murillo.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

5.- Bidezkoa bada, Etxez etxeko laguntza zerbitzuko Pleguak onartzea

M^a Gloria Mtnez. De Guereñu andreak hartu du hitza eta honako hau adierazi du: Legazpiko Udaleko etxez etxeko laguntza programa esleitzeko prozedura arautuko duten baldintza teknikoen orria eta baldintza ekonomiko-administratiboen orria joan den 2006ko apirilaren 27ko Gizarte Zerbitzuen batzordean onartu zirela aho batez.

Segidan, adierazgarriena azaldu du:

- Kontratuaren iraupena: urte betekoa izango da eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez 4 urte bete arte.
- Lizitazio-mota: lizitatzailleek euren eskaintzak hobetu ahal izango dute, prezio merkeagoak eskainiz eta diru-kopuru zehatza ezarriz.

Alkate jaunak aipatutako baldintza orriak EUDELeK egindakoak direla argitu du.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

6.- Bidezkoa bada, Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prezioa eguneratzeko proposamena onartzea.

M^a Gloria Mtnez. De Guereñu andreak azaldu duenez, azkeneko urteotan etxez etxeko laguntza zerbitzuaren urteko igoera hitzarmenaren arabera aplikatu izan da, horrela zegoelako erabakita Osoko Bilkura batean. Aurten Zaintza enpresak urtarrileko, otsaileko eta martxoko fakturretan Kontsumoko Prezioen Indizea aplikatu zaie eta horren gainean idatzia aurkeztu du.

Hauxe da eskaria: aipatu hiru hilabetei dagokienez, bi kontzeptu horien arteko aldea ordaintzea eta hurrengo fakturretan hitzarmenaren arabera erabakitako igoera aplikatzea, harik eta etxez etxeko laguntza zerbitzuaren esleipena erabakiko den arte.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren aho batez onartu da.

7, Bidezkoa bada, eguneko zentroko girotze-zerbitzuaren prezioa eguneratzeko proposamena onartzea.

M^a Gloria Mtnez. de Guereñu andreak Laar enpresari atzerapenekin aurkeztu duen faktura ordaintzea erabaki dela jakinarazi du. Atzerapen

5.- Aprobación, si procede, de Pliegos de Ayuda Domiciliaria

La Sra. M^a Gloria Mtnez. De Guereñu, pasa a explicar que en Comisión de Servicios Sociales de 27 de abril de 2006 se aprobó por unanimidad el pliego pliego de condiciones técnicas y económicas administrativas particulares que han de regir el procedimiento de adjudicación del programa de ayuda domiciliaria del Ayuntamiento de Legazpi.

Prosigue exponiendo lo más significativo:

- Duración del contrato: un año, pudiendo prorrogarse anualmente hasta un máximo de cuatro años.
- Tipo de Licitación: los licitadores podrán mejorar a la baja en sus ofertas, consignado una cantidad concreta y determinada.

El Sr. Alcalde aclara que los pliegos están redactados por EUDEL.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

6.- Aprobación, si procede, de la actualización del precio del servicio de Ayuda a Domicilio

La Sra. M^a Gloria Mtnez. De Guereñu expone que la sociedad Zaintza ha presentado un escrito haciendo referencia a las facturas de enero, febrero y marzo haciendo referencia a la subida del IPC, no de acuerdo a la subida del Convenio por el que se rigen, como se ha venido haciendo en los últimos años en base a un acuerdo de pleno.

Se solicita se le abone la diferencia entre ambos conceptos para los tres citados meses y que presenten las siguientes facturas con inclusión de la subida de acuerdo al convenio referido hasta que se resuelva la adjudicación del servicio de ayuda a domicilio.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

7.- Aprobación, si procede, de la actualización del precio del servicio de animación del centro de día.

La Sra. M^a Gloria Mtnez. De Guereñu expone que se solicita pagar a Laar la factura que ha presentado en concepto de atrasos motivada

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

horiek eguneko zentroetarako ezarri diren tarifa berriak ezarri direlako sortu dira eta 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu dira. Atzerapen horiei aurre egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak behar adina diru eman dio udalari.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren aho batez onartu da.

8.- Bidezkoa bada, Gizarte Zerbitzuko erakunde eta elkarteekin sinatuta dauden hitzarmenak luzatzeko eta diru-laguntzen zebatekoak eguneratzeko proposamena onartzea.

M^a Gloria Mtnez. de Guereñu andreak, joan den 2006ko martxoaren 16ko eta apirilaren 27ko Gizarte Zerbitzuen batzordeetan erakunde desberdinekin sinatuta dauden hitzarmenak luzatzea onartu zela aho batez jakinarazi du. Modu berean, diru-kopuruak eguneratzea erabaki zen eta, horrela, erakunde bakoitzari 66,40 euroko igoera aplikatu zaio.

Segidan, erakunde bakoitzari emandako diru-laguntzen zenbateko zehatzak nola eguneratu diren azaldu du.

Proposamena erabakitzeko botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

9.- Bidezkoa bada, Olazabal institutuarekin hitzarmena sinatzeko proposamena onartzea.

Zabaleta jaunak hitza hartu eta honakoa esan du: Olazabal Institutuarekin akordio batetara iritsi ondoren, 1998 irailaren 29ko Hitzarmena berri nahi dela.

Ondoren hitzarmenaren edukia azaldu du:

- Eskolaz kanpoko jarduerentzako diru-laguntza 10,37 euro/ikasleko; 2005-2006 ikasturtean 172 ikasle daudenez, 1.783,64 euro jasoko ditu.
- Kultur ekintzak burutzeko diru-laguntza: kultura Departamentuak 301 euro emango dizkio Santo Tomas feria antolatzeke helburuarekin.
- Udaletxearen konpromisoak azaldu ditu.
- Ikastetxearen konpromisoak azaldu ditu.

por las tarifas nuevas para centros de día con efectos retroactivos a 01 de enero de 2005.

Para hacer frente a esos atrasos la Diputación Foral de Gipuzkoa dota al Ayuntamiento con el importe suficiente.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

8.- Aprobación, si procede, de la prórroga de los convenios con las entidades y asociaciones relacionadas con Servicios Sociales así como la actualización de las cuantías de las subvenciones.

La Sra. M^a Gloria Mtnez. De Guereñu, pasa a explicar que en Comisión de Servicios Sociales celebradas el 16 de marzo y 27 de abril de 2006 se aprobó por unanimidad la prórroga de los convenios celebrados con las entidades y asociaciones relacionadas con servicios sociales, así como la actualización de las cuantías con una subida lineal de 66,40 euros a cada entidad.

A continuación pasa a explicar la actualización pormenorizada de las cuantías de las subvenciones otorgada a cada una de las entidades.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad

9.- Aprobación, si procede, del convenio con Instituto Olazabal.

El Sr. Zabaleta, comienza su exposición diciendo que tras haber llegado a un acuerdo con Olazabal Instituta, se presenta el convenio que renueva el anterior de 29 de septiembre de 1998.

Prosigue su intervención exponiendo los aspectos básicos que se regulan en el convenio:

- Subvención de actividades extraescolares a razón de 10,37 euros por alumno, por lo que percibirá un total de 1.783,64 euros por un total de 172 alumnos integrantes en el ejercicio escolar 2005-2006.
- Subvenciones de las actividades culturales: el departamento de cultura ofrecerá una subvención de 301 euros para la organización de la feria de Santo Tomás.
- Compromisos del Ayuntamiento
- Compromisos del Centro

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

Azaldutako orok, Hezkuntza Batzordeak emandako oniritzia jaso du.

Une honetan, Herranz jaunak hartu du hitza eta Institutuak duen aseguruari buruz galdetu du. Institutua ez da udal jabegoko eraikina eta, beraz, ez dagokio Udalari hura aseguratzeari; jabeak egin beharko du haren aseguruia.

Zabaleta jaunak Arakama jaunarekin hitz egin zuela horretaz erantzun du. Arakama jaunak eraikin hori Udalarenak diren eraikinen zerrendan sartuta dagoela esan du baina Herranz jaunak hori ez dela horrela adierazi du.

Zabaleta jaunak horren berri institutuari emango diola eta egin beharrekoa egin dezala eskatuko diola erantzun du.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren aho batez onartu da.

10.- Bidezkoa bada, hiri-hondakinen prebentziorako konpromisoa hartzeko eta prebentzio arloan eta hondakinak berziklatzeko alorrean ingurumena hobetzeko plana onartzeko proposamena onartzea.

Garmendia jaunak hartu du hitza eta joan den 2006ko maiatzean Garapen Iraunkorrerako batzordeak egin zuen bileran hartu zen erabakiaren berri eman du. Egindako irizpenean 10. puntuan zehaztutakoa onartzeko proposamena jaso da.

Segidan, Garmendia jaunak II. Eranskinean jasotako konpromisoak irakurri ditu banan-banan. Aipatu eranskinean hiri-hondakinak saihesteko eta berziklatzeko alorrean ingurumena hobetzeko ekintza-zerrenda ageri da.

Horiek entzun ondoren, Anton jaunak beraiek berziklatzearen alde daudela baina ez errausketaren alde adierazi du. Alkate jaunak akordio honekin, berziklatzea sustatu baino gehiago, hondakinak murriztea edo ez sortzea bultzatu nahi dela zehaztu du.

Modu berean, Alkate jaunak ingurumen arloko diru-laguntzak eman ahal izateko Aldundiak hamar arau horiek bereganatzea eta onartzea eskatzen diela erakundeei jakinarazi du. Horreza gain, onartutakoa martxan jartzea ahalbidetuko duen ekintza plan bat egin behar dela eta, bukatzeko

Todo lo expuesto cuenta con el dictamen favorable de la Comisión de Educación.

En este momento, interviene el Sr. Herranz preguntando a cerca del Seguro del Instituto, aclarando que al no ser el edificio del referido centro propiedad del Ayuntamiento, no corresponde a este último sufragarlo, sino que le corresponde al titular del inmueble.

El Sr. Zabaleta contesta que estuvo consultando el tema con el Sr. Arakama considerando este último que el edificio se encontraba dentro de la relación de inmuebles pertenecientes al Ayuntamiento, a lo que el Sr. Herranz responde que no es así.

El Sr. Zabaleta se compromete a comunicar este aspecto al Instituto para que actúe en consecuencia.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

10.- Aprobación, si procede, de la adhesión al compromiso para la prevención de residuos urbanos y aprobación del plan de mejora ambiental en el área de prevención y reciclaje de residuos.

El Sr. Garmendia comienza su exposición dando lectura al dictamen elaborado por la Comisión de Desarrollo Sostenible en sesión celebrada de mayo de 2006, en el que se propone la aprobación de lo referenciado en el encabezamiento del punto décimo.

A continuación, el Sr. Garmendia pasa a dar lectura a los compromisos más significativos contenidos en el Anexo II, Relación de acciones para la mejora ambiental en el área de prevención y reciclaje de los residuos.

Tras su lectura, el Sr. Antón apunta que están a favor del reciclaje, no así de la incineración, a lo que el Sr. Alcalde, le aclara que con este acuerdo lo que se pretende es la no generación o limitación de generación de residuos, más que la promoción del reciclaje.

Expone asimismo el Sr. Alcalde, que la Diputación exige para otorgar subvenciones en materia de medio ambiente que las entidades

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

udaletxeak arlo horretan egin diren ekintzak azaldu ditu.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

11.- Bidezkoa bada, 2006ko lanpostuen zerrenda eta Plantila Organikoa onartzea.

Herranz jaunak ondoren azalduko diren gaien berri eman du eta, horiek guztiak, joan den 2006ko maiatzaren 24an egin zen Pertsonal Batzordean onartu ziren.

- ALDAKETA NABARMENAK 2006ko PLANTILLA ORGANIKOAN:
- Azpieskala adminitratiboa. Administrazio Orokorreko administrariak. Lehen zazpi lanpostu zeuden eta orain sei geratzen dira, horietako batek erretiroa hartu duelako.
- Administrazio bereziaren eskala, erdi-mailako teknikariak: nekazaritza eta hirigintza arloko teknikari lanpostu bat sortu da.
- Udaltzaingoaren oinarritzko eskala: ofizial ondoko mailako lanpostua sortu da; hala ere, lanpostu hori sortzea baldintzatuta dago eta hori bete ahal izateko onartutako lanpostuen zerrendan 60101 –udaltzainburua- zenbakidun kodea duen lanpostua amortizatu egin behar da.
- Hutsik ageri ziren bi udaltzain lanpostuak orain beteta ageri dira.

Herranz jaunak, horrela Legazpiko udaletxean dagoen lanpostu-kopurua 65era iristen dela jakinarazi du.

ALDAKETA NABARMENAK 2006ko LANPOSTUEN ZERRENDAN:

- UDALHITZ hitzarmena onartu eta gero ordainsarien mailai dagozkien siglak aldatu egin dira (hurrengo aztergai azalduko da gaia) eta egungo siglak NVUL – nivel udalhitz Legazpi- dira eta lehengo NVA –nivel arcepafe- siglak desagertu egin dira.
- Hainbat lanpostutako mailak ez dira ondo jaso eta oker horiek zuzendu egin dira.

asuman, se agregen y aprueben el citado decálogo, además de que deberán de constituir un plan de acción que ponga en marcha todo lo aprobado, y continúa exponiendo las actividades realizadas en este sentido por el Ayuntamiento.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

11.- Aprobación, si procede, de la Relación de Puestos de Trabajo 2006 y Plantilla Orgánica.

El Sr. Herranz pasa a exponer lo siguiente, tras informar que ambas cuentan con el dictamen favorable en Comisión de Personal celebrada el día 24 de mayo de 2006.

- VARIACIONES RELEVANTES EN LA PLANTILLA ORGÁNICA 2006:
- Subescala administrativa. Administrativos de Administración General. El número de plazas baja de siete a seis por jubilación de una empleada.
- Escala de Administración especial, clase de Técnicos Medios: se crea la plaza de técnico de agricultura y urbanismo.
- Escala básica de la policía municipal: se crea una plaza con la categoría de suboficial, aunque, como también se recoge en la RPT la misma está condicionada a la amortización de la plaza 60101 – cabo de la policía municipal- en el mismo momento que se cubra la misma.
- Las dos plazas de agentes que figuraban como vacantes, pasan a al situación de cubiertas.

El Sr. Herranz, explica que el total de puestos existentes en el Ayuntamiento de Legazpi, asciende a 65.

VARIACIONES RELEVANTES EN LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2006:

- Las siglas correspondientes a los niveles retributivos se han modificado a tenor de la aprobación del acuerdo UDALHITZ que se va a exponer en el siguiente punto de la Orden del Día, siendo actualmente NVUL – nivel udalhitz legazpi-, frente a la existente hasta ahora NVA – nivel arcepafe-.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2006-5-31



**LEGAZPIKO
UDALA**

**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

31-5-2006

- 30. Area: lanpostu berri bat sortu da, 30212 zenbakidun kodea duena, mantentze-lanetarako ofiziala eta 40. Areari atxikita zegoen 40102 zenbakidun kodea duen lanpostua (mantentze-lanetarako langilea) amortizatu egin da.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

12.- Bidezkoa bada, euskal toki-entitateetako lan-kontratudunen eta funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzea.

Herranz jaunak jakinarazi duenez, joan den 2006ko martxoaren 9an EUDELeK UDALHITZ izeneko hitzarmen berria sinatu zuela CCOO, ELA eta UGT sindikatuekin. Hitzarmen hori indarrean egongo da 2005 eta 2007 urte bitartean eta EUFALEBA izeneko hitzarmena ordezkatuko du.

Udaletxean joan den 2006ko maiatzaren 22an egin zen negoziazio mahaian onartu zen Hitzarmen hori. Egun hartako erabakia erakundeko ordezkariak eta ELA eta CCOO sindikatuak onartu zuten. LAB sindikatua abstenitu egin zen, EUDELekin osatutako mahaian sindikatuak izan zuen jarrerarekin bat etorritz.

Herranz jaunak hitzarmen horri Legazpiko Udalari dagozkion soldata-taulak erantsi zaizkiola jakinarazi du; eman den aldaketa bakarra sigletan eman da eta lehen NVA siglen ordez orain NVUL siglak ageri dira.

Joan den 2006ko maiatzaren 24an Pertsonal batzordea egin zen eta, bertan, prozesuaren berri eman ondoren, prozesuaren aldeko irizpena ematea eta Osoko Bilkurari bidaltzea erabaki zen.

Herranz jaunak, bukatzeko, Udalhitz Hitzarmenaren edukia azaldu du labur-labur.

Proposamena erabakitzeke botoetara jo ondoren, aho batez onartu da.

13.- Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Deialdiarekin batera bidali dira 146 eta 199 zenbakidun bitarteko dekretuak.

- Hay varios puestos cuyos niveles no estaban recogidos correctamente, a lo que se ha procedido a corregir.
- Area 30, se crea un nuevo puesto – 30212-, Oficial de Mantenimiento, y se amortiza el puesto 40102, operario de mantenimiento, adscrito al área 40.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

12.- Aprobación, si procede, del acuerdo regulador de las condiciones de trabajos de los funcionarios y personal laboral de las instituciones locales vascas.

El Sr. Herranz comienza su exposición diciendo que con fecha 09 de marzo de 2006, EUDEL firmó junto con los sindicatos CCOO y ELA y UGT el protocolo marco de un nuevo convenio denominado UDALHITZ, con vigencia desde el 2005 al 2007, que viene a sustituir al antiguo ARCEPAFE.

Prosigue exponiendo que en el Ayuntamiento se aprobó dicho Acuerdo en la mesa de negociación constituida al efecto con fecha de 22 de mayo de 2006, aprobación que fue suscrita por las partes representativas de la Institución, y por los sindicatos ELA y CCOO. El sindicato LAB se abstuvo manifestando que lo hacía por coherencia con la postura mantenida en la mesa con EUDEL.

Continúa el Sr. Herranz manifestando que a dicho Acuerdo se añaden las tablas salariales correspondientes al Ayuntamiento de Legazpi, con la única modificación de la referencia que se hace al concepto de niveles NVA por NVUL.

Con fecha de 24 de mayo de 2006 se celebró Comisión de Personal informando en la misma de todo el proceso emitiendo dictamen favorable a su aprobación por el Pleno.

El Sr. Herranz concluye haciendo sucinta referencia al contenido del mencionado Acuerdo Udalhitz.

Se procede a la votación y se aprueba por unanimidad.

13.- Dar cuenta de los decretos dictados

Los Decretos han sido entregados junto con la convocatoria, cuyos números se comprenden desde el 146 hasta el 199, ambos inclusive.

UDAL-KORPORAZIOAREN OSOKO BILKURAREN AKTA 2006-5-31	 LEGAZPIKO UDALA	ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACION MUNICIPAL 31-5-2006
--	---	---

14.- Eskariak eta galderak.

Anton jaunak Legazpi herriari buruzko seinaleen gaia kontsultatu dutela Aldundian baina oraindik ez dutela erantzunik jaso jakinarazi du. Alkate jaunak gai hori behin eta berriz aipatu zaiola Aldundiari baina erantzunik ez dela jaso erantzun du. Berrito azalduko zaie kezka hori.

Alkateak, arratsaldeko zortzirik eta bost direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

14.- Ruegos y preguntas.

1.- El Sr. Antón expone que tras haber consultado el tema de la señalización del pueblo de Legazpi con Diputación, no han recibido hasta el momento respuesta, a lo que el Sr. Alcalde responde que si bien se les ha estado insistiendo, no han recibido aún respuesta por su parte, aunque se volverá a insistir.

El alcalde levanta la sesión, siendo las veinte horas y cinco minutos, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta de todo lo cual, yo, el secretario, doy fe.

<p>Akta hau 00 - - (e)an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día - - 00 :</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Idoia Arebalo Benito Behin behineko Idazkaria</p>	<p>Juan Ramón Larrañaga Mercero Alkatea</p>